

30 zka 1995.eko ekaina



ED GASTEIZ

Gasteizko Euskaldunon Aldizkaria

FRANKEO ITUNDUA 48/27



**Araba
euskaraz**



kide

APAINDURA

Cercas Bajas, 27

Tfnoa: 14 41 95

GASTEIZ

ZURE HARATEGIAK

**Z
GARMENDIA**

HARATEGIA-URDAITEGIA



ANDALUZIA13
☎ 28 79 42
GASTEIZ



SANTI

HARATEGIA-URDAITEGIA

PARAGUAY 17
☎ 270790
GASTEIZ

**XABIER
AIZPEOLEA**

HARATEGIA



Florida Azoka
2 eta 3 ☎ 13 24 48
Abastos Azoka
2 eta 3 ☎ 26 78 97
GASTEIZ



JOSEBA

HARATEGIA

PARAGUAY MERKATUA
10 ZENBAKIA
El Pilar auzoa • ☎ 25 66 89
GASTEIZ

**gure lurraldeko haragi
samurretan espezialduak**

*aukerarik zabalena
kalitaterik onena*

geu gasteiz EKAINA

**Hauteskunde-
kanpaina
bitxikeriaz bitxikeria**

14. orrialdea



**Euskara,
ikastolak...
Baietz atera**

14. orrialdea



inkestak, kultura, gizartea,
haurrekin solasean,
denborapasak,

...eta askoz gauza
gehiago.



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

geurekin mendira



AZKEN HILABETEETAKO

zenbait igandez, hor ibili gara, Gasteiz inguruko mendietan zehar.

Zeren bila? Mendira eginiko lehen irteera hauetan, naturarenganako grina eta euskararenganako maitasuna/zaletasuna uztartzeko edo bateratzeko aukera izan dugu.

Euskal Herri osoan, sano errotuta daude mendira egiten diren asteburuetak txangoaldiak; eta ugariak dira irteera hauek ederto antolatzen dituzten mendi-elkarteak. Edonola ere, geure asmoak ez dira menditalde tradizionalen asmo berbe-berberak. Gure nahia oso bestelakoa da; xeheagoa eta apalagoa izan liteke baina gure inguruko mendi-elkarteek betetzen ez duten hutsunea beteko genuke, EUSKARA lantzea/erabiltzea, alegia.

Laburbilduz, haxe izango litzateke gure helburua: mendiaz gozatu, kirola egin eta mingainari euskaraz mintzatzeko aukera eman, guzti-guztia lote bakar batean!! Zer gehiago nahi?

Orain arteko ibilaldiak Lautadaren inguruko mendietatik izan dira eta hurbil dugun errealtate ezezagun batera hurbildu

gaituzte. Horrez gain, euskara erabiltzeko gogoia eta asmoa duten pertsonak ezagutzeko aitzakia ezin hobea izan da. Horrela, oraintsu arte ezezagunak ziren pertsonak elkarren ezagun bihurtu dira hurrengo-etarako.

Txangoaldion bidez, gure gertuko ingurunea -pertsonak eta paisaiak- geroz eta hobeto ezagutzeko bidean jarri gara.

Adiskidetasunak, nekeak, pozak, eguzkiak, lainoak... bat egiten dute gure ibilal-ditxoetan. Lehendabiziko urratsak emanak ditugu. Badakigu noiz eta nola hasi garen, amaiara edonolakoa izanda ere, zuen eta geure eskuetan dago mendiko irteera hauen etorkizuna. Zuen iritziak, proposamenak edo iradokizunak behar ditugu!! Anima zaitezte!!

Aurrerantzean egingo diren irteeren maiztasuna, iraupena, zailtasuna edo erraztasuna erabakitzea zuen esku ere badago. Orain arte eginiko txangoaldiak egun erdikoak eta Gasteiztik gertu dauden mendietara izan dira. Urrutiago dauden mendietara joatea izan daiteke gure hurrengo helburua. Aurrera egiteko gogorik ez zaigu falta. Zailtasunek eta eragozpenek ez gaituzte erraz menderatuko.

Orain arteko pausoak emeki-emeki eman ditugu. Oztoporik handienak antolaketaaren arloan izan ditugu. Irteeraren bideragarritasuna eta antolaketa (nora joan, nola, noiz??) erabilitako garraio-motaren menpe (eta haren prezioa, jazarlekuen kopurua, ordutegia...) zeuden. Etorkizunean, itxura gaindiezina duten arazo horiei konponbidea aurkitu beharko zaie.

Uztailean eta abuztuan, halere, ez da mendi-irteerarik antolatuko.

Udako oporraldien ostean eta ikasturte berriarekin batera, berriro ere ibiliko gara mendietan barrena, alanbre-hesi debekatuen gainetik eta haizea lagun.

**ZATOZ GEUREKIN !!
GEUREKIN MENDIRA TALDEA**

GEU GASTEIZ

Gasteizko Euskaldunon
Aldizkaria

Pedro Asua, 2 3.a
Tfno. eta faxa 22 21 53



elkartearen babesarekin
5.000 Aleko Tirada
Lege-Gordailua VI-582/92
ISSN: 1133-0988

Zuzendaria: Iosu Kintas

Erredakzio-burua: Ismael Diaz de Mendibil **Erredakzio-batzordea:** Leire Lopez de Aberasturi, Asier Perez de Karkamo, Susana Calleja, Itziar Mtz de Santos, Lorea Zurimendi, Miel Anjel Elustondo, Xabier Zabaleta
Hizkuntz arduraduna: Inaxio Lopez de Arana **Komikia:** Iñigo Sarasola **Marrakizkiak:** Aitziber Iriondo **Maketazkia:** Alex Badillo, Asier Perez de Karkamo **Publizitatea:** Karlos Fdez. de Betoño **Argazkilaria:** Lukas Etxeberria, Joseba Olalde, David Aguilar, Joseba Unzu, Asier Perez de Karkamo, Lorea Zurimendi **Kolaboratzaileak:** Txipi Ormaetxea, Oier Zulaika, Xabier Etxaniz, JuanJose Kastresana, Iñaki Gauna, Txabi Arnal Gil, Mikel Garmendia
Inprimategia: Gertu Koop. E. (Zubillaga, Onati)
GEU GASTEIZek ez du bere gain hartzen bertan adierazitakoen erantzukizunik

IZENA: _____

ABIZENAK: _____

KALEA: _____

Kode Postala: _____

HERRIA: _____

Pisua: _____

ZKIA: _____

Kalea mintzo bizilekuaz

GASTEIZKO ERDIALDEAN bizitzea gero eta zailagoa da. Era berean, gero eta jende gehiago bizi da gure hiriaren bazterretako auzoetan. Etxebizitzaren prezioa, zarata, kutsadura... funtsezko irizpideak izaten dira nork bere bizilekua aukeratzeko orduan. Baina, denok bizi al gara gustoko dugun lekuan? Berdin al zaigu Gasteizko edozein auzotan bizitzea?



J. A. SALVADOR
komertziala



1. Zer duzu gogokoago, erdialdean bizitzea ala periferian? Zergatik?

2. Joango al zinateke Lakuara bizitzera?

1. Periferian, dudarik gabe. Erdialdeko giroa kutsatua eta zaratsua iruditzen zait.

2. Bai, jakina. Pisuak hor merkeagoak izateaz gain, auzo hori nire gustokoa da.

Kazetaria: Juan Jose Kastresana "Gutxi" • Argazkiak: Joseba Unzalu

BERTSOAK

GAIA:

Ekainean, zer?

EGILEA:

Aitziber Perez de Karkamo

DOINUA:

Zortziko handia



II

OHARRA: agortu dugu tirada, laster handituko dugu. Bitartean pazientzia izan, zuen izenak gordetzen ari gara.

eguzki gabeko larunbatik ez

Negua jada joan zitzaigun eta urtea aurrera orain Ekainan ospatzen degu opor giroko bezpera beroa eta haize epela txoren kantak kalera lotsarik gabe denok daukagu arropa kentzeko aukera

Badakit ondo hile honetan egin behar dela lana azterketa oro gainditzekotan ipiñi behar afana bukatu ondoren etortzen zaigu uda goxoa gugana kurtsoa amaitu ta jai giroa izango da gure plana

axular

LIBURUDENDA

Arka kalea, 11 - 01005 GASTEIZ



izozkiak



FERNANDO ESTEVEZ
langabea



A. PADILLA
jubilatua



AINHOA FERNANDEZ
delineantea



AMAIA FERNANDEZ
administratiboa



M. del PRADO CURIEL
langabea

1. Ahal izatekotan, erdialdean biziko nintzateke denetatik dagoelako eta gauza guztiak egin ditzakezulako kotxea hartu gabe.

2. Bai, nahiz eta nire gustokoa ez izan, baina, diru-arrazoiengatik izango litzateke

1. Periferian bizitzea nahiago dut. Zergatik? Osasunerako hobe delako, besterik ez.

2. Printzipioz ez. Badakigu dirua kontuan hartu behar dela baina zure gustokoa ez den auzo batean bizitzea kristoren paloa da.

1. Umeak kontuan harturik, periferia nahiago nuke, hango bizitza osasuntsuagoa delakoan nagoelako.


2. Jendea joaten da pisuak merkeagoak direlako baina nik nahiago nuke erdialdeko bi-garren eskuko pisu batean bizitzea

1. Betidanik herri batean bizi izan naizenez, periferian bizitzea atseginagoa iruditzen zait.

2. Periferia aukeratu arren, Lakuan ez nintzateke biziko, oso auzo artifiziala iruditzen zaidalako.

1. Agian ohituta nagoenez, erdialdea aukeratuko nuke baina badakit periferiak abaintailak dauzkala: lasaitasuna, parkeak...

2. Lakuan bertan erosi dut pisua baina esan behar da hori egin dudala ordaintzeko inon baino erraztasun gehiago eman didatelako.



postariak ekarria

Euskarak behar du akordioak oraintxe !



BESTE BEHINGOZ euskaltzaleok mobilizatu beharrean egongo gara, AEK-k ekainaren 10ean Bilbora horretara deitzen baitigu. Izan ere, konpondu gabe darrai aspalditik datorren eta hainbatetan mugiarazi gaituen auzia, helduen euskalduntze eta alfabetatzearen auzia, alegia.

Aspaldiko auzia dela diogunean, 1979. urteraino joan behar gara eta gai honetan adituak ez zaretenontzat historia apur bat egiteari egoki irizten diogu.

Aipatutako urte hartan, Euskaltzaindiak helduen euskalduntzearen ardura harturik, Euskal Kontseilu Nagusiko Kultura Kontseilaritzari AEKren etorkizunari buruzko proposamen bat presta zezan eskatu zion. Horrek AEK eta Euskaltzaindiari Planketa Minimoa aurkeztu zien. AEK-k aztertu ondoren, 1980an, kontraproposamena egin zuen bere izaera nazionala eta autonomia

babestuz. Hortxe hasi ziren tirabirak, 82 eta 83. urteetan HABE erakundea eta legearen agerpenarekin areagotuko zirenak.

Jaurlaritzak, helduena euskararentzat "galdutako belaunaldia" zela esan eta haur hezkuntza bultzatuta AEK baztertu egin zuen, azken honek onartu ez baitzuen ekarritako bide hertsia.

Beraz, badira dagoeneko 15 urte auzia konpondu ezinik dagoela. Haurren euskalduntzea eta helduen euskalduntzearen arteko bidea hautsita gizarte osoaren euskalduntzea mutur batetik desaktibatua dago. Jaurlaritzaren oztupoak ez dira AEKren arazoa euskararena eta jakina, Euskal Herriarena baizik. Euskarak akordioak behar ditu, akordio onuragarriak eta oraintxe.

AEK prest dago, Eusko Jaurlaritza...

Gorka Arbulu • AEKidea

EZ NAIZ EGIN DUDAN EZERTAZ DAMUTZEN

Nikolas Xamardo

GOSE GREBAN
IRAKASLEGO PROPIO
BATEN ALDE



Batzuentzat erradikalak, beste batzuentzat eroak, baina denontzat harrigarri. Hasera batean ehundaka irakasle baziren, egun bost besterik ez dira irakaslego propioaren eske burrukan dihardutenak. Ondorioak latzak: despedituak. Baina burrukan dihardute. Eta beraiekin batera Galizan jaiotako gasteiztar bat. Kanporatuei laguntza eskeintzeagatik bi urtez expedientatua, nahiz eta bera funtzioaria den. Gu berarekin egon gara, egindako gose grebaz errekuaratzen den bitartean, gatazka honen ardatzak hobeto ezagutarazi ditzagun.

ZEIN DA ZURE EGOERA LABORALA?

Momentu honetan ni expedientatuta nago bi urtez. Datorren abenduan bueltatuko naiz berriz ere nere funtzionari postura. Beste edozein funtzionariaren errejimen berberaren pean nago.

NORMALA AL DA FUNTZIONARIA IZANDA, GATAZKA HONETAN BARRURAINO MURGILTZEA?

Gizartean balore asko dago, eta niretzat justiziarena da garrantzitsuena. Irakasle kaleratuen eskakizunak hasieratik bi-dezkoak iruditu zitzaizkidan. Beraz, justiziagatik eta elkartasunagatik agertu naiz beren alde. Elkartasunak batzuetan

GARNICA 

Gorbea kalea 40
Tfnoa: 24 18 73

FERRETERIA ETA ETXERAKO TRESNAK

“Euskal gizartea nazionalista da. Euskal Unibertsitatea espānolista”

erreprimiuekin bat egitera eramaten gaitu, bai eta beste batzuetan erreprimiua izatera. Koherentea izanez gero, zigorra jasotzen duzu.

LAGUNAK IRABAZI EDO GALDU DITUZU GATAZKA HONETAN?

Lagun gehiago irabazi dut, inolako dudarik gabe. Honelako egoerak oso inportanteak dira garbi erakusteko zu zeu nolakoa zaren, eta ingurukoak nolakoak diren. Oso positibotzat jotzen dut esperientzia hau.

HORREK ESAN NAHI AL DU EZ ZARELA EZERTAZ DAMUTZEN?

Ez, jakina. Naiz eta paradoxa dirudien ere, zigor hau ezarri didaten agintariei bihotzez eskertzen diet berau. Jarrera horren bidez

argi erakutsi dugu nortzu garen gu, eta zeintzu diren eurak. Unibertsitatea balore unibertsalen menpe egon beharko lukeen zerbait izan behar denean, argi geratu da unibertsitate honetan gauzak ez direla horrela.

NON DAGO ORAIN ZURE ETSAIARIK NAGUSIENA?

Nik ez daukat etsaiarik. Izatekotan ni naiz beraientzt etsai. Beraiek posizionatu dira gure kontra etsai bezela. Unibertsitateko Langile Komisiotakoak dira orain gure aurka gorroto handien ekiten diotenak.

TRAIZIONATUA SENTITZEN AL ZARA?

Gu ez gaituzte traizionatu; baina jende askok defenditzen zituen ideiak bai traizionatu ditu. Eta baita bere burua traizionatu ere, batez ere mobida honetan haseratik zeuden irakasle independente eta sindikatuek.

ETA ESKERTUA?

“Nik ez daukat etsairik. Izatekotan, ni naiz beraientzat etsai.”

Bai, oso. Kanpoko jende asko, Laguntza Batzordekoak, eta batez ere irakasle despedituen alde eta injustiziaren kontra dauden guztiak eskertu nahiko nituzke. Bai irakasle, bai ikasle asko oso ondo portatu dira.

NON DAGO ETA NORK DAUKA GATAZKA HONEN IRTENBIDEA?

Irtenbidea errektoreak gurekin sinatutako akordioan dago, baina errektoreak bere hitza betetzen ez duenez, irtenbidea Gobernu Juntan dago. Eta Gobernu Juntan Langile Komisiokoak nagusi direnez auskalo! Gezurra dirudi: unibertsitatea gizartearen ispilu dela esaten da, baina euskal gizarte nazionalista bat eta euskal unibertsitate espānolista bat dauzkagu.

Asier Perez de Karkamo



MUSKARIA



Santa Maria kantoia

TABERNA

ion'S

TABERNA

era guztietako garagardoak
arratsaldeko 5etatik goizaldera
arte irekita

Salvador de Aspiazu, 11 - Tfnoa: 24 66 17



Zapa, 38

Zer ondo

TUVISA enpresako
autobusek non jeitsi behar
garen euskaraz esango
digute. Zorionak!

IAT Ibilgailuen Azterketa
Teknikoa euskaraz egiteko
aukera badago. Zorionak!


HIK HASI Euskal
Heziketarako Aldizkariaren
0 zenbakia kalean dago.
Zorionak!

Zer gaizki

Zaldiaran eta Olarizu
jatetxeetako zuzendari den
Gonzalo Antonek Gasteizen
karta gure hizkuntzan
jartzeko beharrik ez
dagoela esan du. Eta gu ez
gara bere jatetxeetara
joango. Eta gainera telefono
hauetara deitu eta muxu
bat emango diogu:

Zaldiaran Olarizu
13 48 22 24 77 52

EDOZEIN ORDUETAN DEITU
Zuretzat okerrago, mutil!



Z U R R U M U R R U A K

Zu... ..loa

ZULO BAT zeharkatzeko ahalegine-
tan, alboko zuloan trabukatu eta atzeko
zuloan erori zen gizaraxoa... Izan ere,
zulo hutsa baino ez da Gasteiz
azkenaldi honetan. Kontuz eta adi
ibilita ere, bada arazorik, atzealdean
hirugarren begi baten falta ere
somatzen dugu. Lagun batek esaten
zidan bezala: "Bilboko metrorako
zulatu al dute hainbesterik...?"

Eta langile fin eta izerditsuek zulatu
eta zulatu diharduten heinean, "lan-
gile" korbatahunak dena estali nahian:
"Hemen ez dago zulorik eta badago
ere hilaren 28an desagertaraziko
dugu... botoa guri ematen badiguzue
behintzat..." Dena konponduko omen
dute, Udaletxea demokratizatu, lan-
postuak sortarazi, gaztetxeak ahal-
bideratu, intsumisioa aldarrikatu,
soldatak igo, Euskadi askatu (edo
Arabaren autodeterminazioa eskatu),
Trebiño berreskuratu... Dena aldatuko
omen dute ezer aldatuko ez den ho-
geita zortzi zorionekoan...

Hau da desastrea! Ia non aparkatu ere
ez dago gure hiriburu zabalean. Baina
kontuz! Isunak inoiz baino errazago
jaso ditzakezue. Eta dena zuloei esker.

Bada abantailarik ere ordea. Zerbitzu
publikoak erabiltzea, hain zuzen. Eta
orain autobus "biokonbustibleak" jarri
dizkigute.

Eta denak egun majikoaren zain.
Aspaldiko israeldar haiek jaso zuten
"mana" ekarriko bailigukeen... Giza-
raxook! Gizasemeok baino askaki-
loagorik ba ote?

Esanak esan eta aginduak agindu,
29an lehen bezalatsu izango gara
guztioak, batzuk zulogintzan, besteak
isunak jartzen eta dena eskaintzen
dutenak gorbatarekin... Esandako
harrokeria eta gezur guztiak lau
urterako kutxan izkutaturik. Adi! Edo
zuloan...

Abel Enbeita



**azkarprint**
Cercas Bajas, 4
Tel. 27 92 51

ZURE INPRIMATEGIA
EUSKARAZ

Kolorezko Fotokopiak
ere egiten ditugu

GASTEIZ

INPRIMATEGIA

**Benito Ginea**

liburudenda

Benito Ginea, 2 • Tfnoa: 25 75 14

GASTEIZ

Kaixo lagun euskaltzaleok



EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ aspalditik ezagutzen duzuela ziur gaude eta horregatik ez zaituztegu aspertuko gure bizitzaren 16 urte hauetan zeintzuk izan diren gure zeregin eta lan garrantzitsuenak aipatzen.

Ziur gaude zuek ere EUSKAL HERRIAN EUSKALDUN baten alde amets eta lan egiten duzuela eta beraz EUSKAL HERRI EUSKARAZek dituen helburuekin bat egiten duzuela.

EHEk une honetan bere lana behar den bezala burutzeko hain beharrezkoak zaizkion dirubaliabideak lortu beharrean aurkitzen da. Beraz euskaltzale guztion ardura da hein txiki batean euskara suspertzea eta euskararen aldeko herri ekimenei babesaskeintzea.

Honegatik EUSKAL HERRIAN EUSKARAZek zuen babes eta laguntza ekonomikoa eskatzen dizue



oraingo honetan, zuen kapazidade ekonomikoaren neurrian. Geu-Gasteizko ale honetan aurkituko duzuen fitxa betetzea eta bertan azaltzen den helbidera bidaltzea adorez eskertuko genizueke.

Besterik gabe, jaso ezazue gure agurrik beroenak, eta jakin ezazue euskararen aldeko ekimen guztietan zuen ondoan izango gaituzuela.

ARABAKO EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ

EHE ekonomikoki lagundu nahi dut

Izen-deiturak: _____
 Helbidea: _____
 Herria: _____ Posta Kodea: _____ Tfnoa: _____
 Banku edo Aurrezkia: _____
 Kontu Zenbakia: _____
 Hileroko kopurua: 500pta 1000pta _____pta
 (Euskal Herrian Euskaraz. Kutxileria 72, behe. 01001 Gasteiz)



Umeak zaintzen ditugu

GOIZEZ

Beatriz 22 61 18
 Iholdi 14 45 91
 Nekane 26 91 53
 Eduardo 14 21 99
 Leire 27 32 81

ARRATSALDEZ

Oihana 25 30 35
 Imma 24 22 41
 Rafa 25 22 68
 Iratxe 24 51 81

GAUEZ


Esther 27 84 57
 Imma 24 22 41
 Iholdi 14 45 91
 Idoia 24 47 79

ASTEBURUETAN

Olatz 25 61 20
 Jose Angel 27 62 41
 Saida 26 58 05
 Idoia 24 47 79

Zeu ere haurrak zaintzeko prest baldin bazaude, deitu ezazu 22 21 53 telefonora edo idatzi 1691 postakutxara.

J A T E T X E A



Kutxillera, 26 tfnoa: 28 81 47
 •GASTEIZ

arcaya

Portal de Villarreal, 22-24
 Tfnoa: 26 06 58
 Portal del Rey, 21
 Tlfnoa: 28 08 69

**SOINUA
 IRUDIA
 ARGIZTAPENA
 ELEKTRAGAILUAK
 OPARIGAIK**

Zahatoa beti prest mendian zein futbolean



Mariano Santacruz dugu Gasteizen zahatoak egiten diharduen pertsona bakarra. Bere aitak 1939an zahato denda edo boteria ireki zuen pintoreria kalean. Ordutik egundaino horretan iraun badu ere, Marianok ez du uste inork jarraituko duenik lanbide horretan, berak zahatoak egiteari uzten dionean. Bere tailerrera hurbildu gara eta lanean harrapatu dugu. Zereginak unetxo batez alde batera utzita, gurekin hitz eta pitz aritu da bere lanaren gorabeheraz.

MARIANO SANTACRUZEK

hamaika urte zituela, bere aitarekin zahatoak egiten ikasten hasi zen. Dagoeneko 46 urte daramatza lan horretan. Gogora ekartzen du sarritan, oroimenez ekarri ere, Gasteizen beste zahatogile batzuk ere zeudeneko garaia. Zoritxarrez, adina dela, errentagarritasun falta dela edo beste dela, gainerako zahatogileak desagertzen joan dira urteen joan-etorriarekin batera. Horren ondorioz, bera da gaur egun artisau-lan horretan diharduen bakarra.

“**Erretiratuta ere, zahatoren bat edo beste egiteko asmoa dut**”

Berak zahatogintzan daramatzen urteetan, gauzak asko aldatu dira, ez bakarrik hiria, baizik eta ohiturak eta jendea bera ere bai. Dena dela, Marianok jarraitzen du lan egiten bere aitak irakatsi zion bezala. Zahato dexente saltzen duela esan digu. “Baina asko aldatu da zahatoaren erabilera. Lehen langileek ogitartekoarekin batera zahatoa ere eramaten zuten lanera, gaur, berriz, batez ere aisialdian erabiltzen da, futbolean, mendian...”.

Uste baino zailagoa

Ahuntzaren larrua da zahatoak egiteko oinarritzko materiala. Moztu eta josi ondoren, erretxinaz egindako likido bat sartzen da barruan, sikatzten

IRUSTA
poteo eta pintxoak

TABERNA

ESPEZIALITATEA:
Patata tortila • Otartekoak

Mateo Moraza 19
Tfnoa: 23 19 33
GASTEIZ

HEGOALDE
euskaltegia



**Florida kalea
58 behe**

tfnoa 28 41 96

**01005
GASTEIZ**

“Zahatoak egitea ez da nolanahiko lana, zahatoak ezin dira neurri handietan sortu”

uzten da, gero buelta ematen zaio zahatoari, etab. “Lanbide hau ez da gauek egunera ikasten. Lehen, batzuetan, amak laguntzen zidan; orain, ordea, emazteak. Laguntza hori lan bakan batzuetara mugatzen da, zahatoa josten, esaterako. Lanbide honek ikaskuntza prozesu luze bat eskatzen du, eskulan bat da, eta bi edo hiru egun behar izaten dira zahato bat egiteko. Ez da hain lan erraza”.

Anekdotak pilo ditu Mariano Santacruzrek kontatzeko; hainbeste urte lan horretan egonik, jende bitxia pasatu

artean. Marianok esan digunez, “amerikarrek gauza guztiak beti neurri handietan fabrikatzen dituzte, baina ez dira konturatzen zahatoak egitea eskulan berezi bat dela, eta zahatoak eskuz egiten direnez, ezinezkoa dela horrelako lantegirik martxan jarri”.

Beste behin Tarragonako tabernari batek 25 litroko zahato bat egiteko eskatu zion. Han porroi haundi batzuetatik edateko ohitura omen dago. Eta, gainera, zahatoen inguruan lehiaketa moduko bat dute antolaturik: edaterakoan norbait

“Lehen, zahatoa ogitartekoarekin batera eramaten zen lanera, gaur egun, berriz, aisialdian erabiltzen da gehien bat”

“Zahatoak egiteko materialak topatzea da gaur egun dugun arazorik nagusiena. Larrua ontzen duten fabrikak desagertzen joan dira. Esaterako, nik Burgosetik ekarri behar izaten ditut larruak. Baina hau ez da nire lanarekin soilik gertatzen ari, eskulan gehienak ere desagertzen ari dira eta”.

Dena dela, artisautzako azokak leku aproposak dira lanbide hauek guztiak berbideratzeko. Maiatzaren 26an, 27an eta 28an Getxoko azokan egon zen Mariano eta bertan 320 artisau elkartu ziren. “Leku horietan ikusten da benetako artisautza zer den. Jendeak lan egiten ikusten gaitu, eta salmentak zuzenean egiten dira. Horrelako azokak beharrezkoak dira lanbide hauei indarra emateko. Halere, azoketara joaten diren artisauak zahar xamarrek izaten dira, eta eskulan askok urte batzuen buruan desagertzeko arriskua dute”.

Pintoreria kalean bertan artisau asko desagertu dira. Orain Euskal Herrian hiru zahatogile besterik ez daude: bi Bilbon eta Mariano bera Gasteizen. Jendeak zahatoak erabiltzen jarraitzen du, baina badirudi gauzak aldatu beharko direla lanbide hau desagertu ez dadila. Dena dela, Mariano Santacruzrek zahatoak egiten jarraituko du, “eta erretiratuta ere, zahatoren bat edo beste egiteko asmoa dut”.

Itziar Mtz. de Santos



omen da bere tailerretik. “Komunikabideetarako elkarrizketa ugari egin didate eta beti anekdota bera kontatzen dut”. Antza, behin amerikar batek bere tailerra bisitatu ondoren, Ameriketatik idatzi zion zahatoak egiteko lantegi moduko bat sortu nahi zuela esanez. Amerikarrak zioenez, zahatogile batek hogei bat zahato egiteko gauza bazen, hamar zahatogile kontratatuz gero, berrehun bat egingo zituzten denen

zikintzen bada, horrek ordaintzen du edaria. “Horrelako zahato haundi batez edatea oso zaila da, asko pisatzen du-eta, eta oso trebea izan behar duzu zikindu gabe edateko”.

Mariano azkena

Marianok lan honi uzten dionean, ez du uste inork horretan jarraituko duenik, bera baita Gasteizko azken zahatogilea.



GUREA
jatetxea

Konstituzio Enparantza, 10
Telefona: 24 59 33

FUNTZIONARI BATZUK ALFER HUTSAK DIRA

Alberto Mendiguren Velasco

1.967koa da, Maiatzak 25 du urtebetetze-eguna. Guraso arabarrak ditu: Mendiguren Velasco da Alberto. "Aita Olabarrikoa da, Langraitzen ondoan, eta ama Montoriakoa, Urizaharra ondoan. Velasco abizena uste dut nafarra dela".

San Kristobalen bizi da, ez Adurtzan.

Euskaltegietan ikasi du euskaraz.

"Hegoalden hasi nintzen. Gero, Udaberrian eta orain Oblatasen, funtzionarioekin".

Edozein modutara, euskaltegiko lana baina gehiago behar omen euskaraz ikasiko bada.

"Euskaltegian bakarrik ezin da ikasi. Zabaldu behar duzu, baserri batean, barnetegian...".

Ikasi nahi eta gustatzen zitzaiolako ekin zion.

"Gero, zenbat eta zailtasun gehiago, orduan eta gusto txikiago eta... interesa aldatuz doa.

Gustatzen zait baina badut beharra ere, lanagatik. Euskal Herriko Unibertsitatean egiten dut lan".

Musika du afizio. "Musika, musika eta musika. Rock mota guztiak gustatzen zaizkit.

Elvis Presley, Ramones, Sex Pistols...

barruan sartzen dut Kortatu, Zarama eta

horiek. Etxean nagoenean beti daukat

musika". Erruki ditut Albertoren etxeokak.

"Gero eta gehiago ipintzen ditut

aurikulareak". Zibilizatzen ari da, inondik

ere. "Nahiko zibilizatua naiz". baina

bestelakoari. "Horoskopo txinoa gustatzen

zait. Han zaldia naiz". Irakurri zuen horri

buruzko liburua eta ontzat eman.

FUNTZIONARIOEKIN ARI ZARA EUSKARAZ IKASTEN. ALBERTO, FUNTZIONARIOEK FUNTZIONATZEN DUTE?

Batzuek bai, beste batzuek ez. Ez lanean, ez euskaraz, ez ezer. Batzuk alfer hutsak dira. Ez dut emango izenik, bestela...

ZEIN DUZU BIZIARIK HANDIENA?



Lo egitea. Oso gustokoa dut.

ETA BERTUTEA?

Oso zaila da erantzutea... Ordenatua naizela esango dut. Nire gauzak non dauden jakitea gustatzen zait momentu guztietan.

ZER ESKATZEN DU HERRIAK?

Amnistia dio abestiak, ez? Nik uste dut herriak -herri bezala-, ez duela ezer eskatzen. Hemen, bakoitzak bere gauzak eskatzen ditu eta kito!

ZER ESKATZEN DIOZU ZUK BIZITZARI?

Eskatzeagatik, dena. Osasuna, dirua, lana eta horiek; normalak diren horiek. Eta horretaz aparte, noiz behinka emazteagairen

bat, Alavesa igo dadila... gauza asko.

ESKATU ASKO, ETA ESKAINI?

Eskaini? Ezer ez. Ez dut uste ezer eskain diezaiokegunik bizitzari. Nahi duena hartzen digu.

GASTEIZ, VITORIA, GASTEIZ-VITORIA ALA VITORIA-GASTEIZ?

E.- Euskaraz, Gasteiz, erdaraz, Vitoria. Gustatuko litzaidake Gasteiz izatea, baina uste dut beti Vitoria izango dela. Gizarte honekin!

JENIORIK BADUZU?

Jenio txarrik? Bai. Bat-batean zerbait gertatzen bada haserratzten naiz, baina berehala pasatzen zait. Molestatzen nautenean, jenio txarra daukat.

ZERK ATERATZEN ZAITU ZURE ONETIK?

UA kuadrila horrek. Ezin dut jasan. Eta formalismo batzuek ere bai. Zenbait lekutan sartzeko ez-dakit-nola jantzita joan behar duzula... Zergatik eraman behar dut gorbata, adibidez? Gorroto dut uniformeak eta lotsa ematen dit eramateak; oso erridikuloa da eta umiliagarria. Larruzko txupa, hori da benetan nire uniformeak.

ZEIN DUZU MOMENTUKO KEZKARIK HANDIENA?

Nire lana mantentzea. Oposizioak ateratzen direnean ikusiko dugu. Sartu nintzenetik ateratzen doaz eta oraindik ez

Xabier

musika ona
eta giro
ezinhobeak

taberna

Kutxileria 23



**MIKEL
DELIKA**

**BEIRATE
ESTUDIOA**

Txikita kalea, 1
Tf: (945) 14 64 10
GASTEIZ



**PORTAL
DEL
REY 9**

GASTEIZ

dira atera; eta orain dela lau urte sartu nintzen...

EGUNKARIEN BAT?

Gure etxean "El Correo" erosten dute. Begirada bat botatzen diot egunkari guztiei. Ez daukat bat fijo.

TELEBISTA PROGRAMARIK?

Teleberriak eta. Ez daukat programa fikorik. Aspertuta banago, pizten dut eta ikusten. Orain, lotsagarria den arren, "Goenkale" ikusten zaletzen ari naiz. Lotsagarria da izugarrizko kulebroia delako. Baina esamoldeak eta zenbait gauza ikas dezaket.

OPORRAK NON ETA ZERTARAKO?

E.- Gasteizen beti, atsedean hartzeko. Abuztuan hartzen ditut oporrak. Lehen egunetan Gasteizko jaiak dira eta horiek barkaezin-barkaezinak dira. Gero, atsedean hartzen dut; Gasteizen. Egun batean mendira edo hondartzara... Nik ez dut ulertzen jendea. Oraindik ez dugu ezagutzen gure herria eta ez-dakit-zer ikustera joaten gara. Lehenengo gurea ezagutu behar dugu. Zertarako nahi dugu joan Mexikora? Nik, lehenago nirea ezagutu nahi dut. Gero, ikusiko dugu.

ETXEKO LANAK NORK?

Gure amak. Nik egiten ditudala erantzungo

banu hilko ninduke; edo etxetik botako ninduke. Etxean ez dut ezer egiten.

NONGO EUSKARA DUZU?

Batua. Batua edo bantua, ez dakit.

JAKI GOXOREN BAT?

Etxean ipintzen duten janaria gustatzen zait: potajeak; babarrunak batez ere, txorizoarekin eta.

FILMEREN BAT?

Clint Eastwooden guzti-guztiak. Clint Eastwood beti bera da. Batzuk beste batzuk baino gehiago baina bere pelikula guztiak gustatzen zaizkit.

AKTORE IZENIK, GIZONEZKO NAHIZ EMAKUMEZKO?

Dena dela, jenero bakoitzak bere aktoreak ditu: Kevin Costner, Tom Hanks, baina batez ere Clint Eastwood.

TXIKITAKO OROITZAPEN EDERRIK?

Oporrak aitaren herrian pasatzen genituen Olabarrin, eta joaten ginen Ereñara. Egutero Baias ibaira eramaten gintuzten, bainatzera, egun-pasa. Familia osoa gindoazen, lengusuak eta. Gustatzen zait gogoratzea. Autopista egin zuten eta orain ibaia lehor dago.

ZEURE GORPUTZ-ATALIK POLITENA?

Begiak, nahiz eta ez dudan ondo ikusten eta lentixkak eraman behar ditudan.

AMETSIK BAI, ILUSIO HANDIREN BAT?

Euskara dominatzea da nire ametsik handiena. Saitzen naiz ondo moldatzen baina... Publiko aurrean lan egiten dut eta erabil dezaket, baina egia esan, jende gutxiarekin praktika dezaket. Bestetik, gustatuko litzaidake Araba osoan sartzea euskara.

GIZARTE ARLOAN ZER ALDATUKO ZENUKE?

Politikariak kenduko nituzke, eta argi dauden gauza horiek: pobrezia, gosea, guda, langabezia... Baina politikariak, bai. Lapur hutsak dira. Denak berdin dira. Politikariak, bai... eta batez ere UAkoak!

ZEIN DA ZURE BARRUKO MOTORRA? ZER DA EGUTERO BIZITZEKO GOGOA EMATEN DIZUNA?

Esnagailua... Bizirik nago eta bizi behar dut. Hala eta guztiz ere, familia, lagunak... Jende hori ez banu zailago izango litzateke. Jende horrek laguntzen nau.

ZER NAHIKO ZENUKE JENDEAK ZUTAZ ESATEA, ZU HIL ETA GERO?

Ezer ez. Berdin zait, ez nuke esango!

ETA HIL AURRETIK?

Lagun ona naizela, pertsona ona. Batzuek zutaz ondo hitzegingo dute eta beste batzuek gaizki. Bakoitzak nahi duena esan dezake.

Miel Anjel Elustondo



Floridako altxorra !
35

adaka
madinabeitia

altzariak • apaindurak
Florida, 35 - Tfnoa: 25 93 59
GASTEIZ

Hauteskundeak bitxikeriaz bitxikeria



Hauteskundeak joan zaizkigu dagoeneko. Ekainean gaude, eta ikasturte bukaera laster etorriko da. Bero egiten du eta guztiok nekatuta gaude eta azterketak bukatzeko gogoz. Lanean ari direnak ere oporrak hartzeko irrikitan daude. Maiatzeko hauteskunde-kanpainaren oihartzuna gure belarrietan ia aienatu den honetan, orduko zertzelada eta gertakari batzuk ekarriko ditugu orrialdeotara. Halere, gure asmoa ez da zenbaki aspergarrietan murgiltzea ez eta emaitzei buruzko hausnarketarik egitea ere, hauteskunde kanpainako bitxikeria batzuk zuenganatzea baizik.

ETORKIZUNA GAZTEEN eskuetan dagoela esaten denean, gizarte hobe batera heltzeko, gazteek politikan parte hartzea beharrezkoa dela esan nahi da. Nik, ordea, ez dakit zer nolako etorkizuna ekar

UAko gaztetxo batzuk Bastidako herrira abiatu ziren bere alderdiko kartelak ormetan jarri nahian. Baina non ezarri beren kartelak, eta Herri Batasunako Herriko Tabernan; gainera, antza, alderdi politiko abertzalearen kartelen gainean ezartzeko asmoa zuten. A ze nolako ausardia! UAko buru batek hori ikusi eta 100 metro bost segundotan eginez bere neskato-mutikoengana hurbildu eta hau esan zien zerbantino ederrean: "Geeldi... geeldi...! Jainkoarren!" Hitzok esanda, azaldu zien elkar errespetatu behar zutela... Azkenean, eskoboia, kuboia eta tramankulu guztiak hartuta, karteekin beste nonbaitera abiatu ziren.

Bestalde, PPri dagokionez, alderdi horretakoen ekitaldi nagusian Aznarren jarraitzaile bat kexu zen jateko kartan idatzita zegoen sukaldari nagusiaren izena, Jokin de Agirre, gogoko ez zuelako. Haren ustez, Joaquin behar zuen. Pasadizo hori, sinesgaitza bada ere, bene-benetan gertatu zen, eta Francoren garaiko "si eres español, habla español" mingarri hura ekarri zigun gogora.

“UAko jarraitzaile gazte batzuk saiatu ziren Herriko Tabernan beren kartelak jartzen”

Ardatz itzulpen eta euskara zerbitzuak

Arana, 5 - 1 • Tfnoa: 945-26 44 32 • 01002 - GASTEIZ

GORETTI
ILEAPAINDEGIA

San Antonio, 29-Behea
Tfno: 13 18 55
01005 - GASTEIZ

Narcis Serra eta KEM

Poliziek ere protagonismoa izan zuten hauteskunde-kanpainan. Esaterako, polizia batek sekulako zartakoa eman zion propaganda banatzen ari zen Kontzientzi Eragozpenerako Mugimenduko kideetako bati PSN-PSOEren ekitaldi bat hasi baino lehenago. KEMeko kideek Narcis Serra Espainiako Gobernuako Presidenteordearen bisita aprobetxatu nahi izan zuten intsumituen egoeraren berri emateko. Serra iristean, kazetariak haren atzetik joan zirenez, polizia batek urdailean jo zuen intsumitu bat, inolako azalpenik eman gabe. Intsumitua lurrean gelditu zen ia konortea galduta.

Gasteizen TAOko (OTA, gazteleraz) zaindari batek UAKo autobus bat isundu nahi izan zuen gaizki aparkatuta zegoelako. Hori ikusita, Pizarro alkategaiak gogor hitz egin zion TAOko zaindariari. Gero, zaindariari bere plaka erakutsi ziezaien eskatu zion.

Beste polizia batek EAJko autobus bati isun bat jarri zion arrazoi berberengatik. Argazki ederra egin genezake isuna hura eta EAJk hauteskunde-kanpainan zerabilen eslogana batera jarritz gero: "ESPERIENTZIA ETA ETORKIZUNA"

Karrantzan zehar

Herrietan ere gauza harrigarriak gertatu ziren hauteskunde-kanpainan. Esate baterako, Jose Antonio Ardantza lehendakaria Karrantzara joan zen animalien parkea inaguratzera eta, harekin batera, Pradera, Montalban, Garai, Retegi eta hango alkatea bera ere zihoazen: inguruneaz mintzatu zen, animaliak maite dituela aitortu zuen baina ahaztu zitzaion tentsio handiko linearen proiektuaz hitz egitea, bertako biztanleek duten kezkarik handienetakoa, alegia.

Karrantzan bertan ere beste bitxikeria baten berri izan genuen: alderdi guztiek,



EAJk izan ezik, Hauteskunde Batzordea eta Herriko plenoa salatu zituzten. Hona hemen arrazoiak: udaletxeko idazkariak berriro ere alkatearen alaba eta iloba izendatu zituela administrazioaren delegatu, hauteskunde garaian.

Hauteskunde-kanpainen topiko guztiak gaudituz hasi zitzaigun hizketan Josu Ortuondo, Bilboko alkatezarako EAJko hautagaia, Bizkaiko hiriburua hiriburu paradisiako bezala deskribatu baitzuen, kirolari ezinduentzako herrietako jardunaldien aurkezpenean. Arratsaldean Gida-zakurren Lagunen Elkartearen aurkezpenera joan ziren beste zenbait politiko.

Bestetik, "dirua morroirik onena eta nagusirik txarrena" dela esaten dutenean, ea zenbat politikarik bere egiten duten

Fernando Buesak 100 ogerleko gastatu zituen zozketa batean Laudion

kontu hori. Esaterako, Joaquin Esteban PSOEko hautagaiak argitu zigun zergatik banatu zituen klabelinak, programan arrosak emango zituela iragarri eta gero: "Zuk ez dakizu zer garestiak diren larrosak!" Eta, noski, legislatura hasi baino lehen beren esanak jaten hasten badira..

Fernando Buesa, PSOEko hautagaia, Laudiotik paseatzen ari zela topo egin zuen zozketa baterako boletoak saltzen ari ziren guraso batzuekin. Hara gure sorpresa, Buesa Jaunak 100 ogerleko xahutu baitzituen zozketa-txarteletan. Saria izugarria zen: piper beteen kazuelatxo bat eta tarta bat. PSEko hautagaiak boletoak eskuratu ondoren hau utzi nahi izan zuen argi: tokatzen bazait bidali dirua, 100 ogerleko beti 100 ogerleko dira eta!

Ssana Calleja

**ITURRI
TABERNA**

Zapa, 57 GASTEIZ



ARTEPAN

Artisau

Okindegia eta Goxotegia

Jesús Guridi, 2 • Tfnoak: 27 88 88 - 28 72 37
01005 GASTEIZ

**euskaldunok
euskaldunoi
euskaraz !**



GEU GASTEIZ

EUSKARA, IKASTOLAK...

BAIETZ ATERA!



ARMENTIA BERRIRO Euskal Herriko euskaltzale guztion elkargune izango da, Arabako ikastolen urteroko jaia dela eta. Ekainaren 18ko Araba Euskaraz Armentia Ikastolak antolatzen du. Ikastola gazte honek beharrezkoa du Araba Euskaraz-eko dirua aurrera egiteko edo, hobeto esanda, egun duten zulo ekonomikoa murrizteko. Oztopo guztiak gaindituz, ordea, apostu gogorra egin dio gizarteari: Baietz atera!

Hiru urte igaro dira Armentia Ikastola martxan hasi zenetik, edo bertako langileek esan digutenez, "bi urte t'erdi, oraingoa seguruenik errekor berri bat ezarriko dugu, lanean hasi eta hiru urtetara horrelako 'makrojaialdia' ospatzen ausartzea..." Beharrak bultzatuta sartu dira zurrumbilo horretan, hilabetez hilabete sortzen diren gastuei aurre egiteko zailtasun handiak baititu ikastolak.

Etorkizuna

Hala ere, Gasteizko ikastola honek garai latzagoak ere ezagutu dituela aitortu behar da. Ikasturte honetan iritsi zaie legalizazioa, Buesa jaunaren ezetzari esker bi urtez legez kanpo egon eta gero. Hezkuntza Sailburu berriak zenbait aldaketa ekarri dio Armentia aldeko ikastolari: esaterako, orain arte jaso diren laguntza guztiak Oliberiren garaian etorri dira. Arazo guztiak ez dira konpondu baina itxaropen izpi bat ikusten dute: "Aldaketak gure alde jokatzeko du", adierazi digute pozik.

Armentia ikastolak 12 irakasle ditu aureskola, B.B.B eta U.B.Iko gela

ditare

UME ETA EMAKUMEEN LENTZERIA

Cruz Blanca, 13 • GASTEIZ

UDABERRIA
elkartea

- Euskaltegi Homologatua
- Musika eskola
- Helduentzat
- Dantza
- Ume eta gaztetxoentzat

Uruguay, 9 • Tfnoa: 24 49 65
Abendaño 48 • Tfnoa: 22 34 33
GASTEIZ

guztietarako. Datorren urtean aureskolan hasteko matrikulak aurtengoaren halako bi egin du: gela baten partez, bi zabalduko dira. Aureskola eta B.B.Bren artean dauden kurtsoak betetzeko itxoitea baino ez dago, luze ez, halere. Denborarekin Armentia Ikastolak eskaintza osoago bat izango du eskaerari erantzuteko, ikusten baita egunez egun gero eta neska-mutil gehiagok izena ematen dutela bertan.

Ikastola berri honen zulo ekonomikoa murrizteko lehenengo urratsa ekainaren 18an egingo da Armentian. Begi bistakoa da Araba Euskaraz, Nafarroa Oinez eta Herri Urrats-era jende gehiago joaten dela kanpotik bertatik baino. Aurtengo jaiaren antolatzaileek adierazi digutenez, "hori ona da, elkartasuna adierazten duelako. Beste herrialdeetako jendeak etortzen jarraitu behar du, baina bertakoek ere mugitzeko ordua dute, arabarrak ere Armentian ikusi nahi ditugu eta!" Ea egia den.

Leire Lpz. de Aberasturi.



araba euskaraz 95



BAIETZ ATERA EKAINAK 18 * armentia

	1. AREA IKASTOLA	2. AREA BASELIZA	3. AREA JOLASTOKIA	4. AREA ZALTOKIA	5. AREA BASOA
10etatik 12etara	HASIERA DANTZA	MEZA ABESBATZA DANTZA (txikiak)	superbat	BITTOR AIAPE (ordu 1an)	TXALAPARTA TRIKITRILARIAK
12etatik ordu 2etara	HERRI KIROLAK BERTSOLARIAK	TXISTULARIAK DANTZA		TRIKITIXA KONTRAIRO TALDEA BETAGARRI	MARTIÑOLA TALDEA
ordu 2etatik etara	TXISTULARIAK HERRI BAZKARIA TXISTE KONTALARIAK	MIKEL MARKEZ MUSIKA AUTOKTONOA		EXKIXU URTZ	
4etatik aurera	JOSELU ANAIK	BERTSOLARI GAZTEAK EGAN			

ibilbidean zehar fanfarreak, txistulariak, trikitrilariak eta... giro izugarria!

ANBOTO

TABERNA JATETXEA
EGUNEKO MENUA

Kutxillera, 29 - Tfnoa. 25 00 93 -
01001 GASTEIZ

KOADROAK
MOLDURAK
LAMINAK
MARRAZKIAK

zurbeltz

MAGDALENA, 2 • TFNO: 13 27 20

TXUSTA

TABERNA

ESPEZIALITATEA: **BAT ERE EZ**

Mateo Moraza kalea
GASTEIZ



TOKIEDER IKASTOLA duela 16 urte sortu zen Arabako Foru Aldundiaren babespean. Hasierako urrats horietatik egundaino euskara hutsezko irakaskuntza baten aldeko apustua egin du Tokieder ikastolak hainbesteraino, non borroka luze baten ondoren -eta inolako laguntzarik gabe- lortu baitzuen bere proiektua garatzeko eraikin bat, A, B eta D irakastereduak "asmatu" zituztenean (era berean, orduan erabaki zuten Gasteizen A eta B baino ezin zirela erabili). Lizarrako ikastolarekin, Atarrabiako Paz de Ziganda ikastolarekin eta Tolosako Laskorain ikastolarekin elkar hartuta egindako proiektu hark hau ekarri zuen berekin: "Euskaraz Bizi" proiektua. D irakasteredua baino haruntzago doa "Euskaraz Bizi" proiektua, ikasleek beren ingurunean duten eragina planteatzen baitu, hauek euskara benetan erabil dezaten lortu ahal izateko.

Aipatutako apostuak bere ondorioak jaso ditu dagoeneko. Izan ere, honako hauek lortu dira orain arte: ikasleek euskara erabiltzea beren harremanetan, beren familiak gehien bat erdaldunak izan arren; Euskal Herriko ikastola askok onartzea "Euskaraz Bizi" proiektua; eta, gaur egun, Gasteizen, D irakastereduan ikasle gehiagok izena ematea gainerako irakastereduetan baino.

Halere, bidea ez da erraza izan; borroka luze eta latz baten kostua ordaindu behar izan da. Barneko egoera aldatu da

Denbora gehiegi galdurik: konponbide bat nahi dugu

hainbesteraino non 6 urte baitaramatzagu hasierako gogoia berreskuratu nahiean ikastolaren nortasunari eusteko. Izan ere, Sare Publikoan -derrigorrez- egoteak hasierako gogoari eusteko aukerak (gero eta gehiago) murrizten dizkigu. Gaur egun, gu fundatzailekideak garen arren, ezin dugu "Euskaraz Bizi" proiektua aurrera eraman, irakasleak ez dituzte proiektu horretarako kontratatzen, Administrazioaren arauen menpeko funtzionariak baitira irakasleak.

Horiek horrela, zenbait ahalegin egin genituen (horra hor, gure proiektua berezi izendatzeko eskaria, jabetza aldatzeko eskaria, etab.), baina ezetza izan zen beren erantzun bakarra.

Horrela, ikasturte-hasieran, apostu historiko bat egin behar genuela pentsatu

genuen: gure eraikina uztea eta Armentia ikastola (hau ere gure laguntzarekin sortu zen, duela 3 urte) sendotzea. Helburua hauxe zen: Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioaren Proiektua eskaintzea. Era berean, erreferentzia-puntu berri bat ezarriko genuke: ikastola askoren publikatzeak ikastolen munduari ekarri dion zatiketaren ondoren, guk uste dugu ikastola-kooperatiben multzora itzultzeko bidea urratu behar dela, jakin baitakigu Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioaren Proiektua ezin dela aurrera eraman Sare Publikoan egonda.

Apustu berri horretan parte hartzeko 185 ikasleek izena eman zutenez, irakaskuntza-lerro oso bat lortu zen beheerenerako mailetatik hasita gorenekoetaraino. Lehenago, urtero-urtero lortzen genuen 18 bat ikasle joan zitezen Armentiarra, BBB bertan ikastera. Oraingoan, ordea, gure lagun eta bidekidetzat jo ditugunak (Federazioa, Konfederazioa eta Armentia Ikastola) ez dira, gure ustez, gure apostuak eskatzen zuen mailan egon: oso jarrera hotza izan dute eta ez digute oraindik erantzunik eman (10 hil daramatzagu beren zain). Areago, une jakin batean ezetz borobilik eman izan digute "gizarte-arrazoiak" direla medio. Egun horretantxe erabaki zuen kolektibo honek Araba Euskara 95-ko antolaketan laguntzen ez jarraitzea. (Aurten, denok dakigunez, Araba Euskaraz Armentia ikastolari laguntzeko antolatuko da.) Izan ere, guri onartezina iruditu zitzaigun Araba Euskaraz-en lan egitea, elkartasuna oinarri duen jai batean, alegia, inolako elkartasunik ez eta bai, ordea, etorkizunerako ikuskera itxia erakutsi duen ikastola baten mesedetan.

Ondoren, berriro lotu gintzaizkion gaiari azken ahalegina egiteko. Lehenago aipatutako "gizarte-arrazoiak" arrazoi



ekonomiko gisa aurkeztu zizkiguten orduan. Armentia Ikastolako, Federazioko eta Konfederazioko arduradunekin hitz egin eta gero, ziur gaude berek auzi honetan duten jarrera politikoaren islada besterik ez direla "gizarte-arrazoiak" "arrazoi ekonomikoak" horiek.

Une honetan zain gaude Hezkuntza Saileko ordezkariekin biltzeko. Bilera horretan lortu nahi dugu Armentia Ikastolaren, Federazioaren eta Konfederazioaren erabateko konpromisoa auzi hau konpontzeko. Horrez gain, Hezkuntza Sailaren aldetik eskuratu nahi dugu borondate politiko garbia datorren ikasturtean 185 ikasle horiei eskolatzeko egokia eman dakien. Kontuan hartu behar da, bestalde, 1994-1995 ikasturte hau galdutzat eman zela une jakin batean, apustu horrek aurrera egingo zuelakoan, hain zuzen ere.

JON eta JUANMI.

**Tokieder Ikastolako gurasoak.
Gasteizen, 1995eko maiatzak 31**

Hamairu urte eta gero, hau!

OLARIZU,

1982ko irailak 13. "Araba Euska-raz"en lehenengo ekitaldia. Arabako ikastolen aldeko aurtengo festaren antolatzaileek pentsatu dute Olarizuko lehenengo urrats hura posible egin zutenak omenaldia merezi zutela, berek landatutako haziak fruitu ederreko arbola sortarazi du eta.

Duela 13 urte Ramon Basaras-ek ez zuen uste 1995ean ikastola batek Araba Euskaraz egitea beharrezkoa izango zuenik. 1982an Ikastolen Federazioak langile bakarra zuen Gasteizen: Ramon Basaras bera, egun Armentia Ikastolako diru kontuak eramaten dituen, bai eta Araba Euskaraz 95koak ere. Garai haiek ekarri ditu gogora egun hauetan: "Oso ezberdina izan zen, jende asko izan

genuen aurka eta, aurtan baino askoz ere jende gutxiago izan ginen".

Garai hartan euskaltzale guztiek ez zuten ondo ulertu ekitaldiaren helburua. "Jendea aurka izan genuen eta ez 'betikoak'. Euskaltzale batzuk ere gure kontra azaldu ziren. Ikastola pribatuena jaia zenez, dirua lortzea baino ez genuela nahi pentsatu zuten". Prestaketa lanak egin zutenek, berriaz, behar-beharrezkotzat jotzen zuten Araban euskara eta ikastolen aldeko jai handi bat egitea.

"Gure aldarrikapenak? Ikastolentzako lokal egokiak, Diputazioak ematen ez zuten dirua... eta gauza guztien gainetik, euskara bera". Jaiaren zentzua jendeari ulertaraztea zen orduan zuten arazorik nagusia. Hala ere, 10.000 lagun inguru bildu ziren bertara. 1995ean guztiok dakigu zer den, hortaz, ez dugu aitzakiarik

Baietz atera!

Euskararen eguna
Araba guztian
gure zaharrek
emana
bere erentzian.

Jolastu, dantzatu,
haurtxo guztiak
euskaraz
ikasi, mintzatu,
euskaldunak gara.

Araba dut oinarria,
Araba gure herria.

Mintza Araba
osoko
mendi zelaian
Gasteiz inguruan
edo
herri hurruntan.

Jolastu, dantzatu,
haurtxo guztiak
euskaraz
ikasi, mintzatu,
euskaldunak gara.

Araba dut oinarria,
Araba gure herria.

Egun handi
honetan
euskara nagusi,
euskararen indarra
dezaten ikusi,
nahiz eta batzuek
egurra erausi,
zutik euskarari
eutsi,
nahi duguna zer
da...

Baietz atera, atera
baietz,
gure ikastola
kalera,
baietz atera, atera
baietz,
jarraitu dezan
aurrera.

Baietz atera, atera
baietz,
gure euskara
kalera,
baietz atera, atera
baietz,
jarraitu dezan
aurrera.



Abetxuko: auzo de

Dakizuenez, hilero-hilero auzorik auzo gabiltza GEU Gasteizekoak. Ekainean ez gara auzo batean izan, Abetxuko herrian baizik. Izan ere, Garbiñe Higuera Abetxuko Auzo Elkartearen bozeramaleak esan digunez, Abetxuko ez da auzo bat. "Abetxuko is different" esan beharko dugu, beraz. A! Euskaldunik ere bada bertan. Esaterako, Garbiñeren etxean gurasoak Extremadurakoak izan arren, seme-alabak euskaldunak dira. Abetxuko ez da Azkoitia, bertako plazan, ordea, euskarak badu lekurik. Oraingoan, beste askotan ez bezala, elkarriketa euskaraz egiterik izan dugu.

ABETXUKO EZ AL DA AUZO ARRUNTA?

Ez, hemengo giroa berezia da, Gasteizen baino lasaitasun handiago dago. Guri ez zaigu "auzo" hitza gustatzen, gu herria gara, guztiok elkar ezagutzen dugu eta. Gauza askotan gara bereziak.

HEMEN GIZARTE-MUGIMENDUEK IN-DAR HANDIA DAUKATE...

Bai, herri-lana handia da. Esaterako, hortxe ditugu Abetxukoko Irratia, Gazteen Batzordea edota Mikelinak. Lan horietan auzokideek laguntzen dute. Guztion

eredua Paquita auzokidea izan daiteke: emakume horrek lanean dihardu Abetxuko sortu zenetik; instituzio bat da guztiontzat.

ZEINTZUK DIRA HERRIAREN ARAZORIK NAGUSIENAK?

Gazteen langabezia, leku guztietan bezalaxe. Dena den, etxebizitza ere oso arazo handia da. Udalari behin baino gehiagotan eskatu dizkiogu pisu berriak. Gazteek ez dute hemendik alde egin nahi, baina etxeak garestiak direnez, Gasteizerako bidea hartu behar izaten dute.

Abetxukoko etxeak etorkinentzat eraki

zituzten emigrazio garaian. Geroztik gauzak dexente aldatu dira, eta egun, gezurra badirudi ere, orduko etxeak txalet bihurtu dira.

Dena dela, etxeak oso gaizki eginda daude, hotzak eta hezeak direlako. Halere, auzokideek konpondu egin dituzte eta orain bertan bizi daiteke. Pentsa, orain 15 bat milioi pezeta balio du bakoitzak. Abetxukoren hasierako garaian Udala ez zen oso ondo portatu gurekin eta egun konpondu nahi dute hori, gizarte-etxeak eta hainbat zerbitzu emanaz.

ABETXUKOKO JENDEA GAIZKI IKUSITA ZEGOEN LEHEN.

Behin baino gehiagotan entzun behar izan ditugu "maketo" eta "koreano" bezalako hitzak. Gezurra da hemengo jendea okerra



ditare

UME ETA EMAKUMEEN LENTZERIA

Cruz Blanca, 13 • GASTEIZ



HegoAmerikako
jantziarik ederrenak

PINTORERIA kalea • S. Franciscoaren
kantoiairen ertzean Tfnoa: 25 03 52

bihurtu n herria

dela. Beraz, gezurrei jaramonik ez. Lehen Abetxuko Gasteizetik oso urruti zegoen; gaur egun, ordea, oso gertu dago eta jendeari gustatzen zaio gure herria. "Armentia berri bat" egin nahi dute gurean. Gure ametsa ez da inoiz izan Gasteizera bizitzera joatea. Hemen geratu nahi dugu.

EUSKARAREN EGOERA.

Orain urte batzuk "Fantxuko" izeneko aldizkaria zegoen Abetxukon; euskara erabiltzen zen bertan. Beste garai batean Gau Eskola ere bazegoen. Egun euskara ikasi nahi duenak Gasteizera joan behar du.

Ismael Díaz de Mendibil



**IRUNA
TABERNA**
HAMARRETAOKAK

KUTXI, 63 • Tfnoa: 26 58 52
GASTEIZ

ARTE GALERIA
LOURDES UGARABE
Los Arquillos kalea, 7
Tfnoa: (945) 146261 • Fax: (945) 143509
01001 GASTEIZ



AMILAMIA
arropa eta osagarriak



PINTORERIA, 17
tfnoa: 27 40 09
GASTEIZ

Abetxuko zenbakietan

Abetxuko herri zaharrak bere horretan dirau eta bertan bost nekazari bizi dira.

Duela 35 urte inguru eraiki zuten egun ezagutzen dugun Abetxuko. Etorkinik pobreenak abiatu ziren Abetxukorantz, Extremadurakoak eta Andaluziakoak batik bat.

Herriak 3.800 biztanle ditu.

Aipatzekoak dira eliza, kiroldegia (iaz eraikia), gizarte-etxea eta 20 bat taberna. Begi bistakoa denez, ardoa ez da falta.

Abetxukok auzokide ospetsuak ere baditu: Ruper Ordorika eta Antonio Miranda mendizalea (Everest-en hil zena), besteak beste.



JAR ezazu
EUSKARA
ezpainetan

BARNETEGIAK

Doneztebe, Leitza, Lesaka,
Etxalar eta Arbonan. 2,3 eta 4
aste

Ustailean eta abuztuan eta
irailean

IKASTAROAK

2 eta 5 ordu

Ustailean eta irailean

Urrats guztiak eta EGA

Ustailean 3 ordu gaztetxoentzat

MATRIKULAZIOA:

ekainaren 5etik aurrera



GASTEIZ-ADUR: Errege Katolikoak 15 (28 89 22)
ZALDIARAN: Zaldiaran Plaza 16 (24 49 05)
PINTO: Pintoreria 74 (28 97 80)

most rongotxoak

hAurRAk

Hawai, mon amour

OPORRAK HURBILTZO

daudela eta, ezin ditugu burutik kendu ez itsasoa, ez jokoak, ez izozkiak, ez eguzkia, ez hondartza, ez mendia...

Hara! Hor aurrean daudenak ez al dira Toki Eder ikastolako neska-mutilak Itziar andereñoarekin? Hemen daudela aprobetxaturik, berekin hitzegingo dugu oporraldiei buruz. Batzuetan esaten da "eskolako neska-mutilak sasirik sasi, asko jan eta gutxi ikasi". Ziur nago hori ez dela betetzen kasu honetan.

Eman dezagun aurrean, nota onak ateraz gero, nonbait oporraldi bat egiteko hegazkin-txartel bat ematen zaiela. Zer egingo lukete moztongo erdi zoratu hauek oporraldi horretan?

Parisera joango nintzateke. Monumentuak eta harriz eginiko figurak ikusiko nituzke. Txalupa bat alokatuko nuke ibaitik bueltatxo bat emateko. Eta, noski, Eiffel dorrea ere bisitatuko nuke.

Nahiara, 11 urte

Abere asko dauden toki batera joango nintzateke. Abereak zainduko nituzke eta desagertzeko zorian daudenak hiltzea debekatuko.

Beatriz, 11 urte

Ameriketara joango nintzateke, Illinois hirira. Han Chicago Bulls saski-baloitaldearen jolastokia eta jokalaririk ezagutuko nituzke. Posiblea balitz, Disney World bisitatuko nuke. Azken egunean Michael Jordan-i sinadura eskatuko nioke.

Ivan, 11 urte

Ni Bartzelonara abiatuko nintzateke. Zooa, akuarioa, eta museoak bisitatu ostean, txakur txiki eta polit bat erosiko



nuke.

Eider, 11 urte

Australiara joango nintzateke, animaliekin jolasteko eta animaliak babesteko. Erreserba haundi bat sortu ondoren, jendeari erakutsiko nioke animaliak politagoak direla larrua kentzen ez bazaie.

Itsaso, 10 urte

Hong Kong-era joango nintzateke eguzkia eta bainu gozoak hartzera. Neska bat bilatu eta afaltzera gonbidatuko nuke, zorte pittin batekin. Hiria ezagutzen egunak emango nituzke, baina, hori bai, azken egunean mendira joango nintzateke. Han animalia bat hartuko nuke, Hong Kong-eko bisiataldia Gasteizen gogoratu ahal izateko.

Andoni, 11 urte

Nire gurasoekin Japon eta Hawai-rako bidaia bat egingo nuke. Txinera ikasteaz gain, hango hiriak eta ohiturak ezagutuko nituzke.



deportivos

AZOKA

kirolgaiak

Zure kirol- oinetakoak

Gorbea 34 tfnoa: 24 75 04
Gorbea 27 tfnoa: 24 22 05
Ariznabarra 17 tfnoa: 14 71 33

Fax: 22 07 19

**zure euskal
LIBURUDENDA**

Plaza Berria, 14
Virgen Blanca, 1
Tfnoa: 23 16 79 GASTEIZ

2 Berrikoia

Aitziber, 11 urte

Brasilera joango nintzateke, han oso ondo pasa dezaket neskek banba nola dantzatzaren duten ikusiz. Futbolearen jolastan eta hondartzaren egoten igaroko nuke oporraldia. Azken egunean hondartzara joango nintzateke neska brasildarrak agurtzera.

Gorka, 10 urte

Neri Mejikora joatea gustatuko litzaidake. Hara ailegatuta, izozki bat

janez hondartzatik ibilalditxo bat egingo nuke. Mejiko ondo ezagutzen saiatuko nintzateke.

Ainhara, 11 urte

Posiblea balitz, Parisera joango nintzateke. Han goizez eta arratsaldez igerilekura joango nintzateke, nere kabuz igeri egiten ikasteko. AVE trenean bueltatuko nintzateke Gasteizera.

Larraitx, 10 urte

Lorea Zurimendi



**Alboan ikusten
duzuen eskutitz eder
hau neska batek
lagun bati idatzia da.
Zuek ere, zerbait
esatekorik baduzue,
hemen daukazue
lekua. Zuen agurrak,
zuen mezuak... den
denak dauka hemen
leku, GEUre BUZOIAN**

**Bidali zure mezuak
helbide honetara:
Pedro Asua 2
3. solairua 91. bulegoa
Zai gaude**

GEUre BUZOIA

Banekien, bai, bizitza oso gogorra zela, baina ez nuen uste hainbestekoa zenik.

Mila esker, zure laguntza izan nuen bakoitzean, han agertu zinelako. Beti laguntzeko prest eta ezpainetan irrifar alai bat zenuela agertzen baitzinen. Hitz gutxi hauetan ezin dut esan zuregan sentitzen dudan guztia, baina ene begietan begiratzen baduzu, zureganako maitasuna agertuko da hauetan. Eta nere barnean behatzen baduzu, ene bihotzaren izotz kapa apurtuta ikusiko duzu. Zergatik? Zuk, zure bihotzaren suarekin apurtu duzulako, eta hori egiterakoan, zerbait iltzatu egin didazu. Horregatik ez zaitut ahazten; horregatik zaitut beti nere gogoetan. Zure irudi adoratsuekin, liluratuta utzi ninduzun, baina orain zure laguntzarekin txundituta utzi nauzu.

Orain bai, ziur nago behar zaitudan bakoitzean han izango zarela, han egon zarela beti.

Naiara Alarcia



MODA-MODAN

Zatoz berehala MULTIOPTICASera eta jar zaitez moda-modan MULTISOLEkin. Proba itzazu bere diseinu berritzaileak!

Harritu zaitez ispiluzko eusturez eta liluratu prezioarekin: 1.950 pezetan dituzu. Eta guztiak kalitate optiko kristalekin, Jakina. Zer deritzozu? Jantz itzazu MULTISOL batzuk. Moda-Modan egongo zara.

**ETA NAHI BADUZU,
GRADUATU
EGINGO DIZKIZUGU**



Zatoz eta proba itzazu MULTISOLak

1.950
PEZETAN
ZER DERITZOZU?

MENDIAOPTIKA
DESDE 1856 AZ GERO
MULTIOPTICAS

Andre Maria Plaza • Olagibel, 33 (anbulategi aurrean)
VITORIA-GASTEIZ

ANTARTIDAKO PAISAIK PAREGABEAK DIRA

J. R. Agirre «Marron»



Munduari bira egiteko modu bitxia aukeratu zuen Jose Ramon Agirre ataundarrak. Zazpi kontinenteetako gailurrik garaienak menderatzea zen bere helburua. Ibilaldi neketsu hori Everest-en hasi zuen eta hemezortzi hilabete geroago Aconcaguan (Argentina) amaitu. Bien bitartean, Kilimanjaro (Tanzania), McKinley (Alaska), Elbrusz (Kaukaso), Carstensz (Indonesia), eta Vinson (Antartida) mendi tontorrak igo zituen.

Etxera itzulirik, diapositiba musika elkarrizketaz egindako muntaia baten bidez, bidaian zehar bizi izandako gorabeherak kontatzen ditu. Gasteizen izana da muntaia horietariko batzuk jendaurrean erakusten.

NOLA BURURATU ZITZAIZUN ESPEDIZIO HORI EGITEA?

1993an izan zen, Everest-etik jaitsi ondoren. Gailurra lortzeak sortutako euforiarekin elkarrizketak burua berotzen hasi ginen eta hori sortu zen. Etxera etorri nintzenean proiektua lantzen hasi nintzen. Ez da izan inongo erronka haundi bat egitearren baizik eta aukera ikusten gertatzen eta hori aprobetxatzeagatik.

ZEIN IZAN DITUZU BIDAIAAREN UNERIK ONENAK?

Gailurra lortzen duzun une hori beti izaten da ahaztezina. Horrez gain, oso gogoan ditut jendearekin izandako harremanak. Konfidantza apur bat lortuz gero, bertakoengandik jasotzen duzun erantzuna oso atsegina izaten da. Momentu honetan, une on asko datozkit burura: Keniako massai-ekin, Ginea berriko jendearekin bizi izandako uneak...

ERRAZA AL HARREMAN HORI LORTZEA?

Ez da batere erraza. Berentzako turista bat zara eta harremana oso mugatua da. Kanpotik jaso dutena gehienetan ez atsegina izan delako, oso zaila da eskaini edo adierazi nahi diezun hori berek ulertzea. Horma haundi bat dago eta zaila izaten da gainditzea.

“Zazpi kontinenteetako gailurrik garaienak egin ondoren, ikusitakoa”

amo ederrak
aire zabalean

la calle

taberna

Dultzaina, 10

**BAR
KLAKÉ**

KVTXA, 2

TFNO.
143883

GASTEIZ

**BAR
ESTITXU**

PINTORERIA GASTEIZ



“**Une on asko datorkit burura, jende asko.**”

ALDI TXARRAK ERE IGAROKO ZENITUEN...

Une txarrak ere tarteka gertatzen dira. Vinson (Antartida) mendian, esaterako, azken egunetan izan genituen eguraldi txarrak zirela eta, egunak joan eta egunak etorri, dendatik atera ezinik egon ginen. Horiek nahiko momentu ilunak izaten dira. Everesten ere nahiko esperientzia mingotsa izan genuen sherpak zirela eta ez zirela. Hala ere, beti sortzen zaizu horrelakoak gainditzeko gogoia, mendiak badituelako une gozo asko.

ABIATU AURRETIK ZUK IMAJINATUTAKOAK TOPATU AL DUZU?

Bai, oro har bai. Behar bada ezustekorik haundiena Elbrus-en hartu nuen. Elbrus tontorra Gabardino Balkario errepublikan (Kaukaso) dago eta hango egoera nahiko larria da. Txetxenia aldamenean dute, gerra zorian daude eta hango giroa ez da txantxetakoia. Lurralde haietara joaten garenean, mendira igo eta bertako lekuak

ezagutu nahi izaten ditugu. Jendearen jarrera, ordea, ez da askotan norberak nahi bezalakoa izaten, baina ulertu egin behar duzu. Egoera estu batean bizi dira errusoak direla eta.

Etxetik dakarzun irudi hori sarritan ez dator bat errealitatearekin. Zentzu



horretan, alderik haundiena inguru hartan topatu nuen.

ZEIN IZAN DA GAILUR EDO LURRALDERIK POLITENA?

Mendi guztiak dira politak baina inguruak ere eragin izugarria du. Antartidako paisaiak paregabeak dira, zeharo hunkitzen zaitu, barru- barrura iristen den zirrara baten antzekoa da.

ESPERIENTZIA HONEK ERAKUTSI AL DIZU ZERBAIT?

Ez dut uste horrelako esperientzia bizitzea beharrezkoa denik gizarte honetan bizitzea orekatua, kritikoa edota ahal den bizimodu atseginena eramateko. Munduan zehar dauden arazoengandik kezkatua etortzen zara, ohartzen zara lur honetan egoera larri ugari daudela. Gu, berriz, pribilegiatuak gara eta zoriontsu bizi ez bagara guk nahi dugulako da neurri haundi batean. Zeren konturatzen zara oso gauza xehe eta arruntekin jendea gustora bizi dela. Gure aurrekoak ere gustora bizi ziren gaur eskura ditugun gauza asko ez izan arren. Gaur egungo gizarte kontsumista honek behar bada nahasten gaitu.

BIDAIA ZEHAR IGAROTAKO LEKU ETA HERRIAK IKUSTEKO AUKERA DUGU ORAIN, EZTA?

Muntaia batzuk egin ditut ikusitakoaren berri emateko. Gidoi batean oinarrituz, lau proiektore eta musikaren laguntzarekin kontatzen dut lurralde horietan bizi izandakoa. Saiatzen naiz mezulari izaten eta herri haietako egoeren berri ematen. Mendiak eskaintzen dituen edertasunak erakustez gain, bertako kultura eta bizimodua jendearek ezagutarazi nahi diot.

BADUZU ORAIN GOGOAN BIDAIA GEHIAGORIK?

Askotan galdetzen dit jendeak honi buruz, baina ez dut gogoko gauzak inertziatz egitea. Lasai egoteko asmoa daukat eta egun batzuk igaro ondoren zerbaitekin pizten bada, ongi etorria izan dedila.

Xabier Zabaleta

ZAPATA KONPONKETA

AZKARRA

GILTZEN KOPIAK

Benito Guinea, 18 **GASTEIZ**

TXAPELARRI

TABERNA

kutxileria 83

JO TAKE

landareak lore sortak lore ihartuak

L O R N E D A

Tu Invernadero

ALDABE 6 BEHEA

tfnoa: 945 14 43 63 - 01001 GASTEIZ

RIP

HIESari aurre egiten

1994ko IRAILAK 30. RIP taldea desegin zenetik lau urte igarota, Arrasateko rock taldearen lau partaideak elkarrekin igo ziren eskenatokira, HIESaren kontrako Arabako batzordearen proposamena onartuz. Adurtzako kiroldegia lekuko. Halere, kontzertuak ez zuen RIP taldearen itzulera ekarri. Ez ziren bakarrik egon; Cicatriz, MCD, Eskorbuto eta Hertzainak taldearen zenbait musikari izan zituzten ondoan. Ehundaka lagun bildu ziren hara. Adin guztietako gazteak zeuden bertan: batzuk kontzertu hartako rock taldeekin hazitakoak eta beste asko beranduago berengana hurbildu zirenak.

Izenek bizirik diraute oraindik: Eskorbuto, RIP, Cicatriz, MCD, Hertzainak... ahaztezinak. Izan batzuk, ordea, joan zaizkigu betiko. Berentzako eskaini zen kontzertua. Halere, lagun haiek

ezezik, HIESak jotako gaixoek ere jaso zuten gau gogoangarri hartako omena.

Eskorbutok sua biztu zuen, MCD-k egurra ezarri bertan, Hertzainak-ek garrari eutsi, eta RIP-ek eta Cicatriz-ek itzali egin zuten. Betiko kantak, sekulako jaia. Gau ederra izan genuen. Nola ahanzi! Zerbait gehiago egin behar zen, ordea. Gaixoek merezi zuten bai eta HIESaren kontrako borrokan dabilzanek ere.

Natxo Cicatriz-ekoak, bada-ezpada, kontzertua grabatuarazi zuen. Gauzak ez ziren batere gaizki joan. Aspaldiko kantek lehengo indarrari eusten zioten. Zergatik ez maketatu? Nork egin zuen grabazioa? RIP-ek, jakina.

Arrasatera bueltatu, eta berriro lanari ekin. Hainbat gauza ondo atera ziren kontzertuan, beste batzuk, aldiz, landu



behar ziren: detaile bat hemen, koruak han... Estudioko konponketek beharrezko kalitatea eman diote diskoari.

Diskoan ez da ezer falta. Kanta zaharrak daude alde batetik: "Terrorismo Policial", "Policia No", "Odio a mi patria", "Antimilitar"... Bestetik, tarteko garaioak



Gasteizko Zezen Plaza

ekainaren 9an - gaueko 10etan

IPARRAGIRRE Hegalaria

IPARRAGIRRE

koblakariaren bizitza eta lanei buruzko antzezpen honetan Zeanuriko herriaren ohiko parte-hartzeari arabarrentzako emanaldi berezi honetan Samaniego Abesbatzaren, "Jesus Guridi" Musika Eskolako Ikasle Orkestraren eta Arabako 40 lagunek taldearen eskuhartzea gehitu behar zaio.

Jose Maria Iparragirre 1820an jaio zen Urretxun. Ibiltari nekaezina, askatasun bilatzaile asekaitza izan zen.

Eman ta zabal zazu munduan fruitua, patu orixe izan zuen. Iragan eta geroak, ideiek eta mitoei, beraren nortasun erakargarrian bat egiten dute.

...Nork jarrai diezaioke hegazti baten hegaldiari

400 antzezleri lanean
"Jesus Guridi" Ikasle Orkestra

Areatzako Banda

Samaniego Abesbatza

Arratia eta Otxandioko abesbatzak

Musika Zuzendaria
RUPER LEKUE

Eszena Zuzendaria JOSE MIGUEL ELVIRA

GONTZAL MENDIBIL
Iparragirreraren paperean

GAZTEONTZAT

GAZTEONTZAT
GALIZIA (multiabentura) • 39.700 pta
PIRINEOTIK PIKOETARA • 48.700 pta
PORTUGAL • 31.800 pta
HIRI INPERIALAK • 43.600 pta
PARIS-HERBEHEAK • 45.800 pta
SUIZA • 56.800 pta

INGLATERRA-ESKOZIA • 71.500 pta
ESKANDINABIA • 104.800 pta
ATENAS • 59.800 pta
TURKIA • 64.600 pta
KENIA • 198.900 pta
THAILANDIA • 162.400 pta
INDIA-NEPAL • 213.400 pta
TXINA HANDIA • 211.700 pta

Siervas de Jesús 2 (28 16 88 / 28 19 33)
Abrevadero (Frantzia kalea ondoan) 28 21 88
GASTEIZ
Av. Zumalakarregi, 48 (672 28 42) LAUDIO



ARABA BIDAIK
ETORRI eta GALDETU

restaurante • jantoki

DOS HERMANOS

1887an sortua • Jose Ramon Agiriano
madre Vedruna, 10
Tfnoa 13 29 34 • 13 44 46

ere ez dira falta: "Txapelgorri", "Condenado", "Revolución", eta nola ez, Telesforo Monzonen "Lepoan hartu eta segi aurrera", hainbat kontzerturi amaiera eman zien kanta. Horiekin batera, RIPen agerraldietan hautsa zeharo harrotu zuten bertsioak ere diskoan dira: Angelic Upstarts-en "Solidarity", Mondra" edota "Go Marching".

Zuzenekoa bukatuta, ezusteko bat dakar diskoak: "Enamorado de la Muerte" abestiaren moldaketa akustikoa. Izan ere, kanta horren mezua erabat aldatu dute, haize berria ekarriz. Orain taldekoak ez daude heriotzaz maitemindurik, ez.

"Enamorado de la muerte desde el día que te vi, día y noche esta en mi mente... Eta segi aurrera.

Joxemari-Txabi Arnal Gil





DeNb OrApa Sak

ZE HARRETARA: 1. Arabako lautadako herri bat. Musika mota. 2. Lehen. Lehen. Infusio mota. Baldin. 3. Fabrika. Musika nota. 4. Bostehun. Eta. Unibertsitate Biderako ikasturtea. Nitrogenoa. 5. Laga. Edari alkoholdun. Boroa. Interjekzioa. Gainera. Baldin. 7. Nitrogenoa. Joan aditzaren erroa. Errepikaturik, urak irakiten duenean. 8. Ezberdina. 9. Otso emea. Ukatzeko. 10. Eusko Alkartasuna. Aireztatu.

GOITIK BEHERA: 1. Arabako lautadako herri bat. 2. Uranioa. Lehen. Atzizki bat. Bizkaieraz ote. 3. Norantz atzizkia. Greziako mendi bat. 4. Boroa. Etengabe. 5. Sartzeko. Lehen. Iparraldeko alderdi abertzale bat. 6. Getxoko auzoa. Kazetari ezagun bat. 7. Oxigenoa. Mutil izena. Errepikaturik dardara. 8. Boroa. (Ald.) Lehen pertsona. Pare bat. Lehen. 9. Bizkaieraz gehiegi. Brukoa, txapela. 10. Lehen. Oztopo, traba.

GURUTZEGRAMA



erantzunak



GASTEIZKO HERRIKO TABERNAK

OLARIZU
Jose Uruñuela
Tfnoa: 13 49 18
Auzoko pintxorik onenak

ALDE ZAHARRA
S. Fco Xabier Kantoia
Tfnoa: 28 33 05
Poteo eta giro ona

ERDIALDEA
Ramiro Maeztu 6
23 31 92
Eguneko menua

kultur agenda ■ MAIATZA ■

azkar, azkar!!!

Zumaiako I.
Baleike komiki lehiaketa

14 URTETIK GORAKOENTZAT
epea: ekainaren 16a
bitartean

**50.000 pezeta baino
gehiago saritan**

informazio
gehiago honako telefonoan:
943- 86 10 56




Euskal Herriko Erakunde eta Enpresentzako Bideo Lehiaketa eta Musika Bideoaren Jaialdia

BIDEO JAIALDIEN

beste edizio bat izango da Gasteizen ekainaren 26tik uztailaren 1ra bitartean. Aste horretan zehar Villa Suso Jauregia ezinbesteko elkargunea izango da bideogintza gogoko

dutenentzat. uztailaren 1an jaialdiei amaiera emateko, sariak banatuko dira Principal Antzokian. Bideogintza kulturaren euskarri bihurtu da azken urteotan. Zalantzarik gabe, jendetsua izango dira aurtengo jaialdiak.



EGIN ! • SUKALDE TXOKOTIK • ON EGIN! • SUKALDE SUKALDE EGIN! • ON EGIN! • SU

sukalde txokotik

Gurea: Edurne eta Enrike

GASTEIZEN BADAGO KARTA EUSKARAZ EGITERIK

Konstituzio enparantzan dago eta, orain dela bost urte zabaldu zuten arren, oso leku ezaguna da gasteiztarrontzat. Euskal erara dago apaindua eta kanpotik zein barrutik oso polita da: "Gurea" jatetxeaz ari gara, noski. Edurne oñatiarra dugu bertako zuzendaria eta Enrike sukaldaria.



ZER DA, ZUEN USTEZ, "EUSKAL SUKALDARITZA BERRIA"?

Betidanik izan dugun sukaldaritza da, baina, hori bai eraberritua. ikutu berri batekin osatua. Plater tradizionalak guarnizio berriez hornitzen dira. Horrela, beste plater berri bat sortzen da, nahiz eta funtsean betiko sukaldaritza izaten jarraitu

SUKALDARI GAZTEAK ZAHARRAK BAINO HOBEAK AL DIRA?

Ez, sukaldari berriak eskolatik ateratakoak gara. Hor oinarria ematen digute, gainera, gauza batzuren zergatia ere azaltzen digute. Hori oinarri bat edukitzeko oso ondo dago baina jatetxean ikasten da benetan, eta ez beste inon. Egia esan,

MATRRIKULA

ZABALLIK

MUGABARik

HIZKUNTZ AKADEMIA

frantsesa • ingelesa • euskara •
haurrak eta helduak

MOLINUEVO PAREAN

☎ **13 95 86**

ELEKTRIZITATEA

muntaia elektrikoak
automatismoak
girotzeko musika
eta segurtasuna

GURIA

Matxaria, 2 7. pabilioia • Tfnoa: 943 70 08 95
Faxa: 943 10 85 47 20600 EIBAR



eguneko

Hasi dira herriko jaiak...

Urtero bezala, uda hurbiltzen den neurrian hasiko dira herriko jaiak Araba osoan zehar. Uda honetan ospatuko diren jai guztien berri eman nahi dizuegu.

Hona hemen, bada, Ekainari dagozkionak:

...Ondo pasa!



MIRANDA DE EBRO
Mendiko Jon Deunaren omeneko jaiak
ekainaren 1etik 18ra

BERGUENDA
ekainaren 23tik 25era

OZAETA
ekainaren 23tik 25era

LUKO
ekainaren 2tik 4ra



KALDE SUKALDE EGIN! • ON EGIN! • SUKALDE SUKALDE EGIN! • ON EGIN! • SUKALDE

jatetxeak egiten zaitu sukaldari.

BETI SUKALDARITZA MUNDUA AIPATZEAZ BATERA, GIZONAK ETORTZEN ZAIZKIGU BURURA. ZERGATIK?

"Gurea" jatetxean ditudan laguntzaileak neskak dira eta, egia esan, nik ez nuke beste inor beren ordeiz jarriko, oso onak baitira. Egia da sukaldaritzaren munduan emakumea ez dela gizona bezain ezaguna. Baina neska batzuk oso onak dira, adibidez, Tatus Fondbellida donostiarra eta Toni Vicente galizarra. Neskak ez dira zergatik txarragoak izan behar.

GEU GASTEIZKOEK "GUREA"RA JOANEZ GERO, ZER GOMENDATUKO ZENIGUKETE?

Gure plater guztiak oso onak dira, orokorrean esanda. Baina nik zerbait azpimarratzekotan, arrainak gomendatuko nizkizuke. Arraina oso ona dago, baina "Gurea" jatetxeko arrainik ospetsuenak

hauxek dira: zigalaren isatsa pantxan egina, salmoia arabar erara eta makalau entsalada. Horrekin ziur gustora aterako zaretela.

GAZTEAK NORMALEAN EZ DIRA JATETXEETARA JOATEN. ZERGATIK?

Euskal Herrian ohituta gaude zerbait ospatzekoa denean, jaten ospatzen. Gazteek diru piska bat dutenean hona etortzen dira. Dirua da arazoa eta ikaslea bazara ez duzu diru askorik eta duzun apurra beste gauza batzuetarako erabiltzen duzu: poteatzeko, zinemara joaeko eta abarretarako...

AIZU ENRIKE, LIGATU IZANEZ GERO, ZER ESKATUKO ZENUKE AFALTZEKO JATETXE HONETAN?

Hasteko, zigalaren isatsak Ondarruko erara, jarraian, txangurro entsalada bat eta, azkenik, arraina. Egun horretarako aholku bat: ez jan gehiegi, gustora baizik Pena litzateke gehiegi jateagatik erabat lokartua geratzeko, ez? Edateko hau

gomendatuko nizuke: "vino de aguja" delakoa.

GASTEIZEN MEREZI AL DU KARTA EUSKERAZ JARTZEA?

Bai, inolako zalantzarik gabe. Euskal Herriaren hizkuntza euskara da. Ni euskalduna naiz, Euskadin bizi naiz eta euskara maite dut. Hau garbi utzi ondoren, esan behar dut prest nagoela bezeroak nahi duen hizkuntzan hitzegiteko, neure ahalmenen arabera, jakina, bai gazteleraz, bai ingelesez, eta zergaitik ez grekeraz? Kasu horretan marrazkiez baliatu behar izango banu ere, oso esperientzia polita izango litzateke. Azken batean, dena borondate kontua da. Horregatik, zera esaten dut: nik euskera maite dudana bezala, beste batek berea maite duela. Baina hau da oraindik txarragoa: ezagutzen ez dena mesprezatzea edo gutxiestea, pittinka-pittinka ikastea beti askoz aberasgarriagoa izango da eta.

Karlos Fdz. de Betoño



Bacalao Giraldo

• Eguneko makailu gesaldia • Makailua eramateko prest
• 36 errezeta ezberdin

ERAMAN ETA JAN

"kalitatea eta erosotasuna zure esku"



Angulema, 2 - Tfnoa: 27 23 25 • Basoa, 6 - Tfnoa: 22 16 36 • Gorbea Merkatua - Zaldiaran • GASTEIZ

FORMATOA ALBATUKO OIBEN?



GASTEIZKO UDALA: ZERBITZU ELEBIDUNAK



Ondokoetan badago euskaraz dakien langilerik

DEPARTAMENTUA	ZERBITZUA	HELBIDEA	TELEF.	FAXA
ZERBITZU OROKORRAK	ARGIBIDEAK ETA HARRERATEGIA	Dato, 11	16 11 88	16 15 93
LURRALDE ANTOLAKUNTZA ETA INGURUGIROA	HIRI-HOBAKUNTZA (HIRITARREKIKO HARREMANAK)	Dato, 11	16 13 01	16 15 93
KULTURA		Machete plaza, z/g	16 12 75	16 12 76
O.K.U.S./DEMSAC	ADMINISTRAZIO-ATALA (OMIC)	Done Bikendi aldapa, z/g	16 12 40	16 12 51
HERRI-JARDUERA ETA LAN HARREMANETARAKO SAILA	EUSKARA	Espainia plaza, z/g	16 15 22	13 09 65
GIZARTE ONGIZATEA	ADMINISTRAZIO-ATALA	Espainia plaza, z/g	16 13 60	16 13 63
INFORMATIKA		Vera-Fajardo margolaria, 5	16 14 13	16 16 00
HEZKUNTZA	ARANBIZKARRAKO HAUR ESKOLA	José P. Ullibarri, z/g	28 16 35	
	EL PILARREKO HAUR ESKOLA	Caracas, 6	22 94 99	
	F.J. LANDABURU HAUR ESKOLA	F.J. Landaburu, z/g	28 35 45	
	HAURTZARO HAUR ESKOLA	Santa Maria kantoia, z/g	14 34 33	
	IZARRA-LA ESTRELLA HAUR ESKOLA	Astronomoak, z/g	28 44 95	
	OLARIZUKO HAUR ESKOLA	Dantzari plaza, 6	27 28 95	
	TXIMELETA HAUR ESKOLA	Ricardo Sacristán, z/g	22 46 34	
	SANTA LUZIAKO HAUR ESKOLA	Federico Barailbar, 17	28 82 25	
	TXAGORRITXUKO HAUR ESKOLA	Gasteiz hiribidea, 61	22 95 49	
	ZARAMAGAKO HAUR ESKOLA	Nafarroako erreg., 16-B	28 94 49	



AYUNTAMIENTO
DE
**VITORIA
GASTEIZ**
KO
UDALA



BAIETZ ATERA!

araba euskaraz 95

ekainak 18 * gasteiz



**Mikel Markez, Joselu Anaiak, Bittor Aiape,
trikitixa kontrairo taldea, Betagarri, Xkixu, Urtz,
Martiñala taldea, bertsolariak, trikitilariak,
Txistulariak, dantzak, abesbatzak, txalaparta...**

zatoz!!

... eta abar luze bat